

# IRAKASGELA

2023ko OTSAILA \_Hezkuntza Publikoa\_ Irakasleak EAE

**A**urrean duzuen irakasgELA buletina da, pasa den ikasturtean EAEko Hezkuntza Publikoko irakasleak informatzeko ELA sindikatutik sortu genuen euskarria. Horrela, Buletina 0 izendatu genuen horren segidan, azken hila-beteetako gai eta aldarrikapen garrantzitsuenen berri emateko osatu dugu 2022/2023 ikasturteko lehen boletina, Buletina 1



**Aktibatu**  
**Lortu**  
**Zaindu**

**Hezkuntza lege aurreproiektu honi ez!**

## **Greba eta mobilizazio egun arrakastatsuak azaroaren 30ean eta abenduaren 14an**

ELA, LAB eta Steilas sindikatuok deituta bi greba eta mobilizazio egun burutu genituen Euskal Hezkuntza Sistemako langileok. Sare publikorako deitutako bi greba egunek jarraipen zabala izan zuten, batzaz beste %60 ingurukoa. Zenbaki hori zabalagoa izan zen Haur eta Lehen Hezkuntzan.

Bi egun horietan deitutako mobilizazioak ere arrakasta handikoak izan ziren; goizeko manifestazioetan Bilboko eta Gasteizko kaleak bete genituen eta arratsaldeetan hezkuntza sistemako langile guztiok hiriburuetan egindako mobilizazioak ere oso jendetsuak izan ziren

Horietan guztietan batu ginen langileok mezu argia igorri genien Eusko Jaurlaritzari eta legebiltzarrean ordezkatuak dauden alderdi politikoei: hezkuntza sistemako langileok ez dugu aurkeztutako Lege aurreproiektua ontzat ematen eta ezinbestekoa deritzogu egungo sistemaren sakoneko eraldaketa gauzatuko duen eta langileokin eraikia den Hezkuntza Lege bat osatzea.

Hau esanda, ELAn argi dugu bidea hasi besterik ez dugula egin eta lege aurreproiektuan sindikatuok aldarrikatutako edukiak jaso ezean, ezinbestekoa izango dela greba eta mobilizazio dinamikei jarraipena ematea. Lege aurreproiektua osatuta, Jaurlaritzak Legebiltzarrean aurkeztu beharko du bertan bozkatuko den behin-betiko testua. Eta ondorioz, langileokin eraikitako Hezkuntza Lege eraldatzaile bat helburu izanda, mobilizazio eta greba dinamikei eusteko erantzukizuna dugu sindikatu eta langileok.

Gauzak horrela, edukietan hobekuntza nabarmenik eman ezean, ELAk hezkuntza sistemako langile guztiak barnebilduko dituen greba eta mobilizazio dinamika bultzatzeko egingo du lan. Horretarako, Hezkuntza Lege berriaren eragina langile guztiek pairatuko dutenez, hezkuntza sistemako behargin guztien mobilizazioa bultzatuko du ELAk.

Euskal Eskola Publiko eta Burujabea helburu, bidea langile guztiekin eraiki!





**KPI+: bai ala bai**

## **55.000 langile kontsolidatu**

Langile publikoon lan baldintzak okertzen ari dira etengabe eta prozesu horren adierazgarri da EAEko administrazio publikoko langileok bizi duguna. Enpleguari dagokionean, 55.000 baino behin-behineko langile gehiago daude eta soldatari dagokionez, %16ko eros-ahalmen galera pairatu dugu 2010etik hona. Batez beste, 40.000 euro baino gehiagoko galera da, azken hamarkadan 15 hilabetez musutruk lan egin bagenu bezala.

Egoera jasanezin honen aurrean euskal alderdi eta instituzioei langile publikoen lan-baldintzen aldeko konpromisoa eskatu diegu, hori baita zerbitzu publiko sendoak izateko bide bakarra. Helburu horrekin, enpleguaren eta eros ahalmenaren defentsa aldarrikatu duen kanpaina burutu dugu administrazio publiko osoan. Kanpaina horri amaiera emateko eta hurrengo urteko aurrekontuen bozkaketa hastearekin bat, azaroaren 21ean Bilboko, Gasteizko eta Donostiako Eusko Jaurlaritzako Ordezkaritzetan itxialdiak egin genituen.

Zer eskatu diegu euskal alderdi politiko eta instituzioei? Ez ditzatela gure enplegua eta gure soldatak Madrilen erabakitzen utzi. Izan ere, onartezina da zenbat langile publiko izango ditugun edo gure soldaten igoerak zenbatekoak izango diren Madrilen erabakitzea. Are gehiago, zerbitzu publikoen kaskartze prozesu batean murgilduta gaudenean.

Gai hori mahaigaineratzeko euskal alderdiek zuten unea 2023 urteko aurrekontuen negoziaketa zen. Tamalez, beste behin ere, bai EAJ-ak eta baita EH Bilduk ere ontzat eman dute Espainiar Estatuak gure oinarritzako lan-baldintzak erabakitzea eta, Espainiar Gobernuaren aurrekontuak babestu dituzte.

Bide eraginkor bakarra dago borondate politiko gabezia gainditzeko: greben eta mobilizazioen bidezko presioa. Horren jakitun, kontsolidazio prozesu bermatzaile bat lortzeko helburuarekin, 2022ko udaberrian ELAk greba dinamika bati ekiteko proposamena luzatu zien hezkuntza eta sekotze publikoko gainerako sindikatuei. Tamalez, ez genuen haien babesik jaso.

Bada bestelakorik ere. 2022ko martxotik ELA sindikatua lehen indarra den Sukalde eta Garbiketako sektorean 10 greba egun burutu dituzte kontsolidazio prozesu bermatzailea aldarrikatuz. ELAk bakarrik bultzatutako greba dinamika horrek nahikoa plaza eta oinarri egokiak dituen EPE deialdia adostea ahalbideratu digu.

Irakasleetan dugun ordezkaritzak eta afiliazioak ez digu, momentuz, greba dinamika eraginkor bat abian jartzeko bermerik eman. Hala ere, zure esku dago matxoko hauteskunde sindikaletan errealitate hori irauli eta irakasleen artean ere ELA lehen sindikatu bihurtzea.

ELAk enplegua eta lan-baldintzak defendatu eta garaipenak lortzeko beharrezkoak diren greba eta mobilizazioak aktibatze konpromisoa du. Zuen esku dago horiek ahalbideratzea. Kontsolidazioa orain! KPI+ bai ala bai!

# Langileon osasuna erdigunera

## Irakasle gehienok urteak daramatzagu azterketa medikurik egin gabe

### Ikastetxe gehienetan ez da arrisku psikosozialen aurkako prebentzio plan eraginkorrik

Ez dira garai errazak gure gazteontzat ez eta gure eguna beraiekin partekatzen dugun profesionalontzat ere. Ikastetxeetan topatzen ditugun errealitateak eta arazoak geroz eta konplexuagoak eta larriagoak diren honetan, irakasle asko egoera latzak bizitzen ari da, horiei aurre egin eta kudeatzeko nahikoa baliabiderik gabe gainera.

Hori da ELA sindikatuak dozenaka ikastetxetan burutu duen prekaritate azterketatik ateratako ondorio nagusia. Langileon artean banatu diren ehunka inkestatan lanean pairatzen ditugun prekaritate egoerak identifikatu dira eta honako hau izan da ondorio nagusia: hezkuntzako langileok gehien pairatzen ditugun prekaritate egoerak arrisku psikosozialekin lotutakoak dira, beste guztien gainera.

Gehiegizko lan-kargak, ikasle eta familiekin tentsio egoerek, lanerako giro txarrak... horiek guztiek eragin zuzena dute gure osasunean. Eta hori horrela izaki, Hezkuntza Sailak erantzukizun zuzena du egoera horien prebentzio, kudeaketa eta konponketan. Errealitatean, ordea, ez da horrelakorik ematen eta langile asko eta askok ez dute behar luketen babesik jasotzen.

Horren adibide dira gaixotasun kronikoak jasateagatik lanerako ezintasuna edo zailtasunak dituzten langileak. Izan ere, orain arte zerbitzu eginkizunen bidez moldatzen ziren hainbat egoera jada ez dira berdin tratatzen eta langile horiei ez zaie zerbitzu eginkizunik aitortzen. Irizpidea aldatuta eta ikasturte honetatik aurrera, langileek lanpostuaren egokitzapen eskatu behar dute orain. Baina behin egokitzapena eskatuta, moldaketa horiek oso kasu gutxitan edo gabezia askorekin egiten dira, langile horiek babesgabetasun egoera argian geratuz.

Hezkuntza Sailaren utzikeriaren beste adibide bat mediku-azterketena da. Gainerako sektore eta enpresetako langileek ez bezala, Hezkuntza Sailaren menpeko garenok ez zaigu osasun-azterketa urtero egiten. Are gehiago, kasu askotan, hamar urte ere iragan dira azken azterketatik.

Jokabide honekin, Hezkuntza Sailak lan arriskuen prebentzioan aplikagarri diren arauak urratzen ditu eta beste behin irizpide ekonomikoen baitan bakarrik jarduten duela nabarmentzen da. Gure esku dago egoera zuzentzea, lan osasuna erdigunera!



**Aktibatu  
Lortu  
Zaindu**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA